

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

■ Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.

■ **1h 50 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	- Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. - Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. - Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez.	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.	60 min	30	15

■ **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.

■ Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.

■ Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

SALAMANCARAKO BIDAIA

Loiuko 19 lagunek Salamancara bidaia egin dute abenduan. Herriko *Gazte Planaren* barruan antolatutako bidaia izan da, eta hiria bisitatzeaz gain, *Gazte Plana* bera hobeto ezagutzeko aukera eduki dute gazteek.

Ana Landa Loiuko kultura-teknikariaren esanetan, gazteei zuzendutako bidaia egitea ez da lan erraza izan. Aurretik saiakera batzuk egon ziren, baina bidaiak bertan behera gelditzen ziren, parte hartzera lagun gutxi animatzen ziren eta.

Salamancako gazte batek proposatutako bidaia izan da. Esperientzia ezin hobea, benetan. Bidaian 14 urtetik 21 urtera bitarteko 19 lagunek hartu dute parte, eta primeran konpondu dira haien artean adin desberdinetakoak izan arren. Gainera, oso arduratsuak izan dira. Irteeran egin dituzten ekintza guztiak gazteek erabaki dituzte: *paint ball*, bisitaldi gidatuak Salamancako alde zaharrera ... Horrez gain, nor bere kasa ibiltzeko denbora librekoa izan dute eta Loiuko *Gazte Planaren* berri ere eman zaie. Bidaiak 166€ balio izan du, baina *loiugazte* txartela dutenek 99€ ordaindu dute.

Gazteek oso ondo baloratu dute irteera oro har. «Bidaia zoragarria izan da, inoiz ahaztuko ez dudana. Eskerrak antolatzaileei», esan digu Olaiak. «Nik ere oso ondo pasatu nuen Salamancan, baina hurrengo luzeagoa izan dadila, mesedez», gaineratu du Aitorrek. Izan ere, gazteek bidaia gehiago antolatzeke eskatu diote Udalari. «Hurrengoan, Bartzelonarako irteera egiteko asmoa dugu. Hori martxoan izango da eta parte-hartzaileen adina 13 urtetik 27 urtera luzatuko dugu», azaldu digu Landak.

Loiuko *Gazte Planak* harrera izugarria izan du, eta dagoeneko 45 dira *loiugazte* txartela eskuratu duten lagunak. Txartel horri esker, beherapenak dituzte hainbat ekintzatan: antolatzen diren bidaietan; Salamancarako bidaian, adibidez. Era berean, herrian antolatzen diren pilota-partidetarako sarrerak eman zaizkie doan, baita lehenengo mailako futbol-partidak ikusteko sarrerak ere. Beste alde batetik, gazteak dauden taldeei diruz lagundu die Udalak, eta logotipoen lehiaketa egin da.

Bestalde, Udalak lan-poltsa antzeko bat ireki du gazteek umeak zaintzeko eta klase partikularrak emateko, eta oso ondo funtzionatzen du. Horrez gain, udaletxean bertan edo Udalerako lan egiten duten enpresetan praktikak egiteko deialdia zabaldu du, eta bi hilabetez herriko neska bat egon da lanean udaletxean, kultura-arloan.

<aikor.com>. Egokitua.

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. **Landaren ustez, zer moduz joan da Salamancarako bidaia?**
 - a) Ia-ia bertan behera gelditu da.
 - b) Lan zaila izan da antolatzea.
 - c) Lagun gutxi animatu dira.
2. **Zer moduz konpondu dira joan diren ikasleak haien artean?**
 - a) Arazoak egon dira adin desberdinetakoak izateagatik.
 - b) Oro har, ondo konpondu dira, baina istiluak egon dira batzuetan.
 - c) Nahiz eta denak adin berekoak ez izan, harremanak onak izan dira.
3. **Zer egin dute Loiuko gazteek Salamancan?**
 - a) Kulturako teknikariak proposatu dituen ekintzak.
 - b) Adin bakoitzarentzat ekintza desberdinak antolatu dituzte.
 - c) Beraiek nahi izan dituzten ekintzak.
4. **Zein da oro har gazteen iritzia irteerari buruz?**
 - a) Oso ondo pasatu dutela.
 - b) Oso luzea izan dela iruditu zaie.
 - c) Ahazteko modukoa izan dela.
5. **Zer aldaketa aipatu du Landak Bartzelonarako bidaian?**
 - a) Joango den gazte kopurua handiagoa izango da.
 - b) Adin-tartea zabalagoa izango da.
 - c) Luzeagoa izango da.
6. **Loiugazte txartelari esker, zer lortu dute gazteek, besteak beste?**
 - a) Udalak gazteak dauden taldeei diru-laguntza ematea.
 - b) Udalak gazte-taldeei biltzeko lokalak uztea.
 - c) Lehenengo mailako futbol-partidetarako sarrerak merkeagoak izatea.
7. **Klase partikularrak emateko eta umeak zaintzeko lan-poltsaz gain, zer antolatu du Udalak?**
 - a) Udaletxeko kultura-arloan lan egiteko deialdia.
 - b) *Gazte Plan* dinamikoago batean lan egiteko deialdia.
 - c) Udalerako lan egiten duten enpresetan edo udaletxean praktikak egiteko deialdia.

2. ariketa

Elkarrizketa bat irakurriko duzu. Testuan, kazetariak egindako galderak falta dira. Hurrengo orrian dituzu galderak. **Lotu galderak eta erantzunak.**

Markatu testuko hutsuneak (8, 9, 10...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

HAIZEA BAINO AZKARRAGO

Udan, Granollers-en, Judith Otazua 14 urteko atleta gernikarra txapeldun izan zen Espainiako kadeteen mailako atletismo-txapelketan, 600 metroko proban. Bere bizitzako lehenengo elkarrizketa da eta oso urduri dago.

8

Finala amaitu zenean ez nintzen konturatu txapelduna nintzela. Konturatu nintzenean, poztasun handia sentitu nuen, egia esateko, ez nuen sinesten.

9

Txikitan saskibaloia eta krosa egiteko izena eman nuen. Urte batzuetan bi kirolak egin nituen, baina, azkenean, bigarrena aukeratu nuen, oso zaila baita biak batera egitea.

10

Galdakaoko atletismo-taldean nire ahizpa Iraide eta biok gabiltza, eta aurren, asteen lau egunetan joan behar dugu bertara ordu eta erdiz entrenatzera.

11

Bai, zerbait, baina nekatuta eta berandu heltzen naiz etxera askotan eta, horregatik, ezin ditut etxeko lanak egunero egin.

12

Ez, baina entrenatzaileak ahalik eta garbien jateko esaten digu eta, ahal den neurrian, ez jateko gozoki askorik.

13

Aurtengo emaitzak oso onak izan dira pistan. Euskadiko Txapelketan lehena geratu nintzen luzera-saltoan eta 1.000 metroko lasterketan. Bizkaiko txapelketan, emaitza bera lortu nuen luzera-saltoan eta 1.000 metroko lasterketan. Krosetan ere garaipen asko izan ditut.

14

Bada, datorren urtean antzerako emaitzak lortzea. Eta, etorkizunari buruz amets eginez, Europako txapelketan parte hartzea eta, zergatik ez, olinpiadetan, nahiz eta hori oso urrun ikusi.

15

Lagun asko egiten dituzu eta jende asko ezagutzen duzu. Txapelketan parte hartzea ere oso polita izaten da.

16

Bai. Jende asko gara atletismoa praktikatzen dugunak Gernikan; eta guk, adibidez, Galdakaora joan behar dugu. Orain krisian gaude, baina Gernikan atletismo-pista bat egitea oso ondo egongo litzateke, benetan.

BASTERRETXE, Dani.

Aldaba, 2013ko iraila-urria. Egokitua.

2. ariketa. Lotu galderak eta erantzunak

- A. Non eta zenbat entrenatzen duzu?
- B. Tituluez gain, zer beste poztasun ematen dizu kirola egiteak?
- C. Txikitan ere atletismo-txapelketak irabazten zenituen?
- D. Zer sentitzen da horrelako memento batean?
- E. Beste garaipenik lortu duzu?
- F. Galdakaoraino joaten zara entrenatzera. Ondo egongo litzateke talde on bat izatea Gernikan, ezta?
- G. DBHko 3. maila ikasten ari zara. Ba al duzu ikasteko denborarik?
- H. Baina horra heldu baino lehen bide luzea egin duzu. Nola hasi zinen atletismoaren mundu honetan?
- I. Dieta berezia egin behar duzu?
- J. Zer gustatuko litzazuke lortzea?

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	8	9	10	11	12	13	14	15	16
Galderak									

Soberakoa	
-----------	--

3. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

A SANCTI SPIRITUS UDAL- EGOITZA

Helburuak. Bermeoko udal-egoitza honek duen helburu nagusia da erabiltzaileei eta familiei arreta ematea, eta zeregin nagusiak honako hauek dira: erabiltzaileei eta familiei egoitzan sartzeko argibideak ematea eta hasierako balorazioa egitea; familiei laguntza ematea sartzeko eta egokitzeko prozesuan; bizitzarako garrantzitsuak diren ekintzetan autonomia bultzatu eta mantentzen laguntzea.

Zerbitzuak. Sukaldea, arropa-garbiketa, errehabilitazioa, dinamizazio soziokulturala eta egunean 24 orduko erizaintza-zerbitzua.

Instalazioak. 3.200 m² erabilgarri ditu bost solairutan banatuta. Eraikina oso-osorik berritu da 2010ean. Erabilerraztasun-baldintza guztiak betetzen ditu. Horretarako oztopo arkitektonikoak kendu eta espazio zabalak eta orekatuak sortu dira eta, horrekin batera, gune babestu eta lasaiagoak ditugu erabiltzaileek eta familiek dituzten beharren arabera giro egokia izateko.

<bermeokoudalarenzaharrenegoitza.org>. Egokitua.

B OIZPE EGOITZA

Helburuak. Arreta osoa eskaintzen duen zentro sozio-sanitarioa da Oizpe, ez da bakarrik egoitza bat, 60 urtetik gorako eta beheko erabiltzaileak elkarrekin bizi dira.

Egoitzaren ezaugarri garrantzitsuenak dira familia-giroa eta hurbileko tratua, profesionaltasunean eta maitasunean oinarritutako arreta ematea.

Zerbitzuak. Behin betiko egonaldiak, behin-behineko egonaldiak eta eguneko egonaldiak. Bestalde, erabiltzaile bakoitzari tratua pertsonalizatua ematea, eta horretarako bakoitzari egokitutako programak prestatzea eta gauzatzea.

Instalazioak. Munitibarren (Bizkaian) 10.000 m² ditu, barrualdean eta kanpoaldean banatuta. Kanpoaldean, hall handi bat dauka aulkietan esertzeko eta paseatzeko eguraldiaren gorabeheretatik babestuta. Lorategiak eta zabalgunek ere badauzka aire librean paseatzeko. Helikopteroak lurreratu ahal izateko aparkalekua. Barnealdean 20-24 m² dituzten logelak dauzka, guztira 99 plaza. Solairu bakoitzean jantokia eta egongela daude.

<oizpe.com>. Egokitua.

C PETRA LEKUONA ZAHARREN EGOITZA

Helburuak. Irabazi-asmorik gabeko erakundea gara eta adineko pertsonen ongizatea babestea eta laguntzea da gure helburu nagusia. Horrez gain, pertsonen intimitatea babesten ahalegintzen gara eta haien autonomiari eta parte-hartzeari garrantzia ematen diegu; horretarako, harremanak zaintzen ditugu eta talde-lanetan oinarritzen da gure lana.

Zerbitzuak. Ostatua, elikadura eta arropa-garbiketa. Erizainak, psikologoa eta Osakidetzako medikua ditugu, baita fisioterapia-zerbitzua eta podologia-zerbitzua ere. Ile-apainketa, eguneroko prentsa eta bakarkako telefonoa.

Instalazioak. Oiartzungo egoitza honetako lehenengo solairuan sukaldea, jantokia, egongela, erizainen eta medikuaren gela eta fisioterapiarako eta soinketa egiteko gela daude. Azken bi solairuetan banatzen diren logela gehienek balkoia edo begiratokia daukate. Kanpoaldean, 1000 m² inguruko lursaila dauka paseatzeko edo dauden eserlekuetan kanpoaldean eserita egoteko.

<petralekuona.com>. Egokitua.

3. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

17.	Arreta emateko orduan, ez dira profesionaltasunean bakarrik oinarritzen.
18.	Ez erabiltzaileei bakarrik, beren familiei ere sartzen eta egokitzen laguntzen diete.
19.	Nahiz eta euria egin, busti gabe paseatzeko aukera ematen du.
20.	Erabiltzaile bakoitzari telefono bat eskaintzen diote.
21.	Erabiltzaileen parte-hartzeari garrantzia ematen diote.
22.	Erizain bat egongo da egun osoan zehar.
23.	Egoitzaren asmoa ez da dirua irabaztea.
24.	Hiru egonaldi mota eskaintzen ditu.
25.	Sartu nahi dutenen balorazioa egiten dute hasieran.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egoki, zuzen edota aberats.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia** bete behar duzu.
Gutxienez 50 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Zure auzoko batek tailer bat jarri du trastelekuan/ganbaran. Horrek hainbat arazo sortzen ditu. Berarekin hitz egin duzu. Ez dizu kasurik egin.

Udaletxera joan zara kexa jartzera eta inprimakia eman dizute. Azaldu zer gertatzen zaizun eta proposatu zein izan daitekeen konponbidea.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «SALAMANCARAKO BIDAIA»

1.	B	2.	C	3.	C
4.	A	5.	B	6.	A
7.	C				

■ **2. ariketa:** lotu galderak eta erantzunak.

■ **Irakurgaia:** «HAIZEA BAINO AZKARRAGO»

Hutsuneak	8	9	10	11	12	13	14	15	16
Galderak	D	H	A	G	I	E	J	B	F

Soberakoa	C
-----------	---

■ **3. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.

■ **Irakurgaia:** «ZAHARREN EGOITZAK»

17.	B	18.	A	19.	B
20.	C	21.	C	22.	A
23.	C	24.	B	25.	A